

Zarautz, kultura anitzen aberastasunaren eskenatoki

Kulturen arteko "hesi artifizialak apurtzea helburu dutela, 'Zarauztik mundura' jaialdia antolatu dute larunbaterako

AMAIA VENTAS. Zarauzko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza-rekin elkarlanean, Zarauztik mundura jaialdia antolatu du larunbaterako. Hirugarren urtez jarraian, Zarautz kultura aniztasunaren eta aberastasunaren eskenatokia izango da. "Udalerria herrian bizi diren guztientzat, bertan jaiotakoentzat zein kanpotik datozenentzat topagunea izatea, eta elkar ezagutu eta oraindik egon daitezkeen hesi artifizial horiek apurtzea da jaialdiaren helburua, adierazi zuen Gizartekintza zinegotzi Maribel Albizuk ekimenaren aurkezpenean.

Jakinarazi zuenez, "antolaketa prozesu irekia izatea eta "herritarren partaidetza sustatzea bilatu dute aurten, batez ere "bizilagun berriena, haiek baitira protagonista nagusiak. Ildo horretatik, ospakizuna antolatzeko batzordea eratu zuten. Hainbat herrialdetako Zarauzko bizilagunak elkarlanean aritu dira prestaketetan: Argentinako Silvia Crespo, Guatemalako Eli Picon, Txileko Paula Bustos eta Boliviako Rosa Quispe, besteak beste. Horrez gain, herriko hainbat elkarte ere esku hartu dute antolaketa-lanetan; Malen Etxea, Saharautz, Yakaar eta Bidez Bide elkarateek, esaterako.

Hala, egitarau betea antolatu dute larunbaterako: "Aste osoan zehar askotariko sentsibilizazio- jarduerak antolatu ditugu, Kultura eta Gazteria sailekin elkarlanean. Bide horretatik, "denetarik izango dela jakinarazi zuten: herrian ibiliko den auto-karabana, topaketa gastronomikoa, Zarauzko Bertso Eskolako ikasleen eskutik bertso saioa, Senegalgo gazteen euskal dantzen erakustaldia, capoeira emanaldia, eta antzerkia, besteak beste.

Aniztasuna hizpide

Zarauztik mundura ekimena, ordea, ez da larunbateko jaialdira mugatuko. Izan ere, astean zehar hainbat jardunaldi antolatu dituzte Udal liburutegian zein udaletxean. Larunbata bitartean, Afrikako egunkariak eta dokumentuak ikusgai izango dira Sanz Enean. Era berean, etzi ipuin kontalari saioa izango da Maite Francoren eskutik, 17:30etatik aurrera, toki berean. Jarraian, 18:30ak aldera, Duelo migratorio y síndrome de Ulises hitzaldia izango da EHUKo irakasle Karmele Salaberriaren eskutik, udaletxean. Ostiralean, berriz, Conociendo Guatemala hitzaldia eskainiko du udaletxean herrialdeko enbaxadore Jorge Hernandezek.

Egitaraua

Honakoa da larunbaterako Munoa plazan antolatu duten egitaraua.

12:00. Kultu aniztasunaren jaialdiaren inaugurazioa.

12:15. Bertso saioa Zarauzko Bertso Eskolako kideen eskutik.

12:30. Maite Lopezen kantaldia.

13:00. Senegaldarren eskutik, Afrikako herrialde hartako dantza erakustaldia.

13:30. Senegalgo musika.

17:00. Capoeira erakustaldia.

18:00. Sorginak antzezlanak Akelarre taldearen eskutik.

19:30. Marisa Merino irakasle zarauztarraren eskutik, munduko dantzen emanaldia.

21:00. Rafa Villafaña eta Fuerza latina taldearen kontzertua.